

Hezkuntzarako iratzargailua



Andoni Mujika
IRAKASLEA
@mujikaandoni

Batzuetan gertatzen da diagnostiko kolektibo batzuk, ardura eragiten diguten arren, desaktibatu egiten direla. Lozorroan sartzen dira. Hezkuntzaren kalitatearekin ere horixe gertatzen zaigulakoan nago, erdi-geldi jarraitzen dugu. Horren seinale batzuk dira: irakasle dezenteren desmotibazioa, zenbait ikasleren ikasketarako gogo-eza, administrazioaren rol lausoa edota gurasoen hezkuntzarekiko kezka.

Zantzu horiek zuzenak balira uste dut irtenbidea ere aktore horien eskuetan legokeela. Eta batez ere, administrazio, irakasle eta gurasoengan.

Administrazioetik hasita, hezkuntzaren kalitatera gerturatzeko zenbait ekinbide proposatu lekiok. Lehen: berrikuntza pedagogikoa dela kalitaterako bide zuzenena. Administrazioak berak lideratuta edota berritze esperientzietan dihardutenak lagunduz egin daiteke. Bigarrenik, unibertsitatearen laguntzarekin, beste aldaketa sakon bat dago egiteko: irakaslearen estatusa jasotzea. Hori lortzeko irakaslegaien puntako formazioa bermatu behar da, eta horrez gain, etorkizuneko irakasle horri exigitu behar zaio hezitzaile-bokazio garbia. Hirugarrenik, berrikuntzarako nahitaezkoa den formazioa, zentroen hornikuntza eta ratioetan inbertsio handiagoa legoke. Eta amaitzeko, ikastetxeen gobernantza eta kudeaketa ereduaren berrikuspena, irudimenez eta ausardiaz.

Irakasleak. Geu gara hezkuntzaren kalitate eta berrikuntzarako eragile erabakigarrienak. Funtzio hori betetzeko motibazioa eta bokazioa behar ditugu, eta inpresioa dut irakasle multzo bat ez dagoela lanean oso pozik. Irakaslea gogotsu ez badago ez du lanean bere onena emango, eta horrek lotura zuzena du eskaintzen den kalitatearekin. Esan daiteke motibazioa aktibatzeke proiektu pedagogiko eraldatzaile bat edukitzeak lagundu dezakeela. Ze uste dut gogo hori ez dela, dagoeneko, ordainsari handiago eta lan-ordu kopuru txikiagoekin pizten. Eta bokazioarekin, baxera, egin daitekeen gauza bakarra da bereizgarri hori irakasle izateko hautua egin aurretik ekarri.

Gurasoak. Zenbait zentzutan protagonismo askoz handiagoa behar dute ikastetxeetan. Izugarrizko ekarpena egin dezakete hezkuntza-kalitate terminotan eta hezkuntza-komunitatea artikulatzeko eta antolatzerako orduan.

Laburbilduta, hezkuntzaren kalitatera hurbiltzeko klabeak dira: lehenengo, irakasleen motibazioa eta bokazioa; horrekin batera, berrikuntza pedagogikoa, proiektua; baita irakaslearen estatusa eta formazioa jasotzea ere. Bestetik, gurasoen parte-hartzea; horrez gain, inbertsioak eta ratio egokiak izatea, eta amaitzeko, zentroen ahalduntzea eta gobernantza eredu autonomoak. ■

Super Carles



Itxaro Borda
IDAZLEA

Begia tai gabe luzatzen dugu Katalunia aldera. Zertan dugu Puigdemont? Ematen du xake partida erraldoia eramaten duela bere burua sakrifikatuz, preso edo erbestean diren beste bere hamar abentura independentista lagunengisara. *Com si fos ahir* telesailaren antzeko kulebroia da Kataluniako afera. Eskerrak *Polonia* emankizunak dirauela eta Messik Barça salbatuko duela.

Ez dakit konturatzen garenez zein neurritarainoko krimen sinbolikoa egin zuten iragan urriaren 27an Errepublika aldarrikatuz lau zapabost segundoz. Espainiaren erregetiar funtsa zalantzan

eman zen eta frankismoarekiko zilbor hertzea ebakitzeaz utzi. Aitaren hiltzea bezalako eginkizuna zitekeen eta hori Madrilek ez die barkatzen. Errepublika eta Espainia ideiak ez dira (oraino) uztargarri eta hondar berrehun urteotan errepublikazaleak dira beti gaztigatu, gerra zibil ugarien kariatara.

Carles Puigdemontek, europar kartzelaren baten zokotik edo egun oroz agurtzen dudan Gregorio adiskide zahar errepublikazale amorratuak, papoan daraman hiru koloredun banderaren pin'sarekin, aldarrikatzen dutenak oihal bera iruten dute. ■